

Banaka

final handi baten anatomia

Iñaki Bidegain



Iñaki Bidegain Alberdi, 1950,
Donostia.

Azken urteetan egile honen literatur jarduerak emaitza oparoa eman du, Egildo editorialean *La poderosa duermeyela de Daniel* argitaratu zuen 2001ean, *Samarkanda existe* 2002an, *No me dejes así* 2004ean, eta *Mar de arena* 2005ean.

Iñaki Bidegain Azterketa eta Diagnosi Zerbitzuko Buru eta Sendagile zuzendaria da Gipuzkoako Aspacen (Elbarritasun Zerebralaren Elkarte). Medikuntza ikasi zuen Zaragozan, neurologia ebolutiboan espezializatu zen Bartzelonan eta Parisen.

Gipuzkoako Hoziketa Behar Bereziatarako Koordinazio Zentroko zuzendaria izan zen (1982-1990), eta hizkuntzaren patologia irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (1982-2003). Hizkuntzaren patologia graduondoko irakaslea da unibertsitate berean.

Egilearen prestakuntzak liburu honen gaiari heltzeko moduan eragina izan duela pentsa daiteke, neuropsikologiaren ikuspegitik heldu dio, baina hau igarrita ere irakurle gehienak harritu egingo dira seguru asko, eta pilota munduan jorratu gabe zegoen esparru batean barneratzen gaituela ikusiko dute.

Eskuz banakako txapelketak, eta oro har goi mailako kirolak, kirolariaren gaitasunetan eragiten dituen narriadurak bistaratuko dizkigu egileak eta hauen harira sortzen diren erreakzioak nabarmenduko ditu, hitzez adierazi ahal izan ditzagun, uler ditzagun.

Are gehiago, norberaren bizipenetan oinarritutako oroitzeponak ere eragin ditzake, neuropsikologikoki bakoitzak bere erara bereganatzen eta onartzen dituenak. Hori dela eta, orain edo aurrerago beren gaitasunetan narriadurak eragindako distortsio uneei aurre egin behar dietenentzat, egilearen hausnarketa ballagarria izan daiteke.

Liburu honetan, 1993an Julian Retegik eta Ladis Galartzak elkarren aurka jokatu zuten azkeneko eskuz banakako finalean gertatu zena aztertzen da, final haren inguruan gertatu zena, Julianek 38 urte zituen orduan, Ladisek 33. Biek hartu dute parte kontakizunean, bakoitzak bere pilotari bizitzako sekretu batzuk aitortu dizkigu, beren bizipen sakonak, existentzialak, orain arte gordeta eduki izan dituztenak. Beren esentziaz mintzo dira, irakurleek, zuek, euren berri jakin dezazuen. Liburu hau kirol legez lehiatzen hasi eta bukatu dute, Retegi II-ren hitzaurrea Galartza III-ren epilogoaren aurka.

Iñaki Bidegain

Itzultzailea

Jexus Zufiria Letemendia

BANAKA

Final handi baten anatomia

Aurkibidea

Eskerrak

Egile eta argitaratzaileek ondoko pertsona eta erakundeei eskerrak eman nahi dizkie lan honetan azaltzen diren irudiak erabiltzeko baimena eman digutelako:

Diario Vasco, Mikel Alonso, Usoz, Aygües eta Luisan Garcia

Egilea: Iñaki Bidegain Alberdi
Itzultzailea: Jexus Zufiria Letemendia
Edizioa: Bainet Editorial, S.A.
Diseinua eta maketazioa: RTO publicidad

Eskubide guztiak erreserbatuak.
Indarrean dauden legeen arabera, erabat galarazirik dago lan hau zatika zein osorik erabiltzea jabeek alde aurretik eta idatziz emandako baimenarekin ez bada.

©Iñaki Bidegain
© Edizio honena, Bainet Editorial, S.A.
Uribitarte, 18-48001 Bilbao

I.S.B.N.: 978-84-96177-28-4
Legezko gordailua: BI-603-2007
Inprimaketa eta koadernaketa: GRAFO S.A.
(Printed in Spain)

Iñaxiri.....	11
Hitzaurrea, Julian Retegi.....	13
Sarrera.....	21
Julian.....	25
Ladis-Julian.....	91
Partidua.....	103
Julian.....	123
Epilogo, Ladis Galartza.....	135

Kontuak kontu, bizipen kuttun hauen eraginez, Iñaxiri Larraun bailararekiko atxikimendua errotu zitzaion eta horregatik Julian Retegik eta Ladis Galartzak elkarren aurka jokatzeko zuten bakoitzean berak beti Ladisen alde egiten zuen sutsu. Beretzat Ladis ederragoa zen zintzo aurpegia zuelako, pilotari hoberena, dotoreena, pilota jokorako berezko dohain bikainenak zituen; eta gainera Baraibarkoa zen, Larraun bailarakoa. Julian berriz petrala iruditzen zitzaion, *tentexkoa*, “hori *prejitu* bat dek” esaten zuen.

Baina Julianengan berak beregan sumatzen zituen bertute batzuek ere ikusten eta miresten zituen, Julian tentea zen, bera ere bai, pilota jokoa barru-barrutik bizitzen zuen, dena ematen zuen, propio landutako alerta egoera bat mantentzen zuen. Sufritu egiten zuen, barre egiten zuen, jostatu egiten zuen, ospatu, bizi, hausnartu. Porrotaren ondorioz behera etortzen zenean, bere etxera itzultzen zen, sutondora, zakurren ondora, bere frontoira, bere sendira, berriro hasten zen, ernaberritu egiten zen.

Iñaxik, berak ere bai, bizirik bizita ospatu egiten zuen, sufritu, jostatu, dena batera egiten zuen bere esparruan, bere etxean, senarrarekin lanean, semeak hazten eta hezten. Orain ere bai, bizitza arazo txikiak eta tarteka handiak konpontzean datzala bilobei erakusten, erorialditan etxera itzultzea, hausnartzea, jaiki eta berriro hastea, ernaberritzea, bidea egitea, ederra dena bereiztea, hein batean ia edozerrekin ahal dela jakitea.

Hitzaurrea

Hots egin zidaten, liburu honen berri eman eta beranduago entregatu zidaten, 150 orrialde, irakurri eta aztertu, *harrapazak*, ez nengoen lan klase horretara ohitua.

Kosta zitzaidan idatzia nire eskuetan hartzea, are gehiago irakurtzen hastea, ez hainbeste irakurketa bukatzea, gaia interesgarria iruditu zitzaidan, betidanik erakarri izan nau, gauzak erdipurdi egiten jakin ez eta apunteak hartu nituen; apunteak hartu nituen idatzitakoa eta bizitakoa alderatzeko, hilabeteak pasa ziren egilearekin eta itzultzailearekin hitz egiterako, nire apunteak berrikusi nituen, azkenean ez zitzaizkidan beharrezkoak iruditu.

Liburuaren ikuspuntua, gaiari heltzeko era, pilotariaren gainbeherari erreparatzeko modua, gustatu zitzaidan, bizitzaren gatza eta piperraren isla zen, nik ere liburuaren edukiaren ildo beretik askotan hausnartu izan nuela pentsatu nuen.

Esate baterako, liburu honetan aipatzen da Ladisen aurkako azkeneko finalean, kantxa zapaldu nuenean, burua argitu egin zitzaidala eta lasaitu egin nintzela, nire alerta areagotu egin zela; jendearen marmarrak, pilotaplazako giroak, nire kirioak baretu zituzten, ni neu nintzen, etxean nengoen, lasai.

Egia da, hori gertatu zitzaidan, hori gertatzen zitzaidan final handietan, partidu handietan, are gehiago: pilotari batek bere ingurunean, frontoian, final batean, hori sentitzen ez badu, ez da txapeldun handi bat izango, urte askotako txapelduna izan nahi badu akats hori zuzendu beharko du, gabezi hori osatu.

Irabazi nahi duen pilotaria, edo irabazi eta iraun nahi duena, urduri egon daiteke, egonezina eduki, neurketa hasi aurretik, azken unera arte; kantxa zapaltzen duenean ordea ez, ongi pres-



Retegi pilota moztera doa. (Argazkia: Mikel Alonso)

JULIAN REATEGUI

Queremos que surjan pelotaris fuera de Euskadi

Con la consecución de 11 títulos de campeón de España de pelota a mano individual, Julian Reategui ha nacido —a los 28 años— todos los records de esta modalidad y se ha convertido en el mejor pelotari de todos los tiempos. Su personalidad emerge en la cancha de juego, se erige hasta a punto y su carrera profesional de treinta temporadas sobrelleva con la sencillez de carácter de este narrador que todo a lo que aspira es a mantenerse en activo y afe campari.

EL MUNDO.— ¿Puede afirmarse que nació en un instante y con una pelota en la mano?

JULIAN REATEGUI.— La verdad, de mi casa a la puerta del frontón de Euzko Adarra están 15 metros. Desde que aprendí a andar, se tuvo una pelota de lata en mi mano. Además, en la Euzkadi de aquellos tiempos la pelota era el deporte más importante. Había fútbol pero en los pueblos pequeños no corría.

EL MUNDO.— Un pueblo pequeño con grandes campeones.

J. R.— Eranos en una pequeña localidad que daba una hora de Pamplona, y entre sus 180 habitantes también puede presumir que salga muchos figuras. Ha habido grandes pelotaris en el mundo aficionado, pero el primero que trató de ser profesional fue mi tío Ignacio Reategui, que llegó seis temporadas, con títulos de campeón de España.

EL MUNDO.— ¿Cómo descubrió al actual mejor pelotari mundo del mundo?

J. R.— Desde muy niño, veíamos en mi un gran jugador, una manera elegante para la pelota de este deporte. Tanto mi tío como Martín Urbasa —un abuelo de mi abuelo de entrenador y compañero— se empeñaron en llevarme a un campamento juvenil del Labri de Pamplona. Era la primera vez que salía de Euzko y llevaba que prestarme la ropa blanca —que por cierto me está ancha en todos los sentidos—. Recordó que a los 15 años pesaba 52 kilos con mis 1,75 m. de estatura.

EL MUNDO.— ¿Cuántos que es primer pelotari en ese momento deli hospitalizar a los espectadores.

J. R.— Creo que se tiraron por el suelo, viendo a un espectador que hizo «gato» —cuando encarrimaba la pelota en su primer intento. Lo que sí recuerdo es que Martindokoro y yo ganamos ese campamento.

EL MUNDO.— Su permanencia a punto a punto es proverbial.

Se «chiflaron» afirma que se entrega demasiado en los campamentos.

J. R.— ¿Qué me pasa algunas veces pero pienso que siempre debe estar el 100% de mi personalidad. En el mejor de los casos diere el 80% en mis actuaciones, pero considero necesaria esa «reserva». Además, creo que cuando mis posibilidades y deseos mis acciones a cada necesidad.

EL MUNDO.— El exceso de temple hace frágil al actor, pero ¿los ideales son de carne y hueso?

J. R.— Puede que sea la mano de mis acciones físicas. Con tan sólo 23 años tuve la primera gran victoria, fue una victoria de legitimación cuando tenía

interna, Camacho, entonces jugador del Real Madrid, tenía una lesión durante esa temporada. El tardó dos años en recuperarse, y a los tres meses saltó a la cancha.

EL MUNDO.— ¿Diciendo ahora en la creta de la vida. Se dice que, además de las rodillas, tiene su mano derecha «gastada».

J. R.— Es sabido que el pelotari trata de utilizar más su derecha y, efectivamente, creo que está «gastada». Afortunadamente tengo una mano izquierda tan buena como la derecha. Entonces, ahora sólo jugaré más con la izquierda y sólo utilizaré la derecha como último recurso.

EL MUNDO.— Once títulos de campeón de España indivi-

duales, tres veces subcampeón, además de individual de campeonato y torneos de empresa, parecen avalar la condición de pelotari nato, aunque se dice que pudo ser «victoriano».

J. R.— Creo que hay una lección absoluta de todo esto debido a que antes de pasar al campo profesional crece ocho meses talando en los Alpes. ¿Accidental? Pues sí, siempre porque entonces cinco meses un lugar del monte, durando en barrancos, levantándose en la montaña para que nos acostumbrásemos. Fue muy duro.

EL MUNDO.— En la cancha tiene fama de «no perdona» a su padre.

J. R.— Es el primer torneo

de empresa en el que nos programaron puntos, ambos llegamos a la final y me ganó por 22-18. Creo que estuvo todo el año «muy pendiente» como dice mucha a este respecto y, a los diez meses, la victoria era nuestra 22-11. Fue a por él. Además, me vino tanto que me hizo un año desde el inicio entre separar que fue difícil. Pasa en la vida, como otros. ¿Estamos ante un generador de jugadores?

J. R.— Puede surgir, como en otros deportes, pelotaris de escuela, con toda la capacidad física y técnica, pero necesitan adquirir el instinto de pelotari. Algo que no debe tener; el «cuenta» y que los que aprenden desde niño. Es imprescindible pagar con los minutos. A uno se habla fuerza y punto de fuerza, pero saben utilizar recursos y son otros los que se deben utilizar en para el futuro.

EL MUNDO.— Los niños dicen que la pelota duele.

J. R.— Esto es uno de los mayores errores que se ha cometido en estos últimos años. Hace pagar a los niños con pelotas fáciles. En nuestra vida, empezamos con pelotas de liga y se trata de ir pasando a todos los puntos imaginarios y no adaptamos nuestra. A lo largo, esto es lo más importante de un pelotari.

EL MUNDO.— La Federación Vasca de pelota utiliza el «material» en las escuelas de Euzko con más de veinte años. ¿Es esto el camino?

J. R.— Sin ninguna duda. Yo mismo fabrico pelotas de liga para los niños de Euzko y me pegan encantados. Hasta Julio de los 7 años está adaptado «material», pero que luego cambia en ese momento. Así salieron pelotaris como Borroa los Domestica de jugadores a figura.

EL MUNDO.— ¿Puede que la pelota tiene generación fuera de Euzko Adarra?

J. R.— Cuando se está la empresa Pineda de pelota se responde en muchos localidades de Castilla y León y también me ha enseñado. Entendí mucho de pelota y perdí muchos los minutos. Es un gran público. Con la empresa Argandoña, a lo que me he de involucrar, quiero acostumbrar la pelota a nivel todo el Euzko y a todo el mundo. Así surgieron pelotaris fuera de Euzko.

EL MUNDO.— ¿Julian Reategui, «el campamento», el torero, como Miguel Indurain?

J. R.— Creo que se me parecen. Por lo menos, me parecen la misma expresión de voluntad y de perseverancia. En Euzko me toca a los toreros.



FOTO / CARLOS GARCIA

•• Aunque tengo la mano derecha gastada, afortunadamente mi izquierda es igual de buena

•• Tuve la misma lesión que Camacho. El tardó dos años en recuperarse y yo sólo tres meses

•• Antes de pasar al campo profesional estuve ocho meses talando en los Alpes

Bere porrotera bideratu zezakeen nahasmendua ekiditea ez zegoen bere borondatearen menpe bakarrik, bere adimenean kontzienteki landu zezakeenaren menpe; aitzitik aginduak inkontzienteki landu eta betetzen zituen tresnaren nariaduraren araberakoa zen gehienbat, bere garun automatikoaren araberakoa, dena azkar eta ongi irtetzen zitzaionean primeran zebilela sumatzen zuen horren araberakoa, berak nola egiten zuen jakin ezinda.

Faktore horren egiaztapenak larritu egiten zuen. Erantzun automatiko horietan barneratu ezin zela bazekien, bazter guztietara iritsi zitekeen eta bertan esku hartu okerrak zuzentze aldera, baina ezin zen iritsi garun automatiko horretara, gaztetan eta akatsik ez duenean bere kasa ezin hobeki erantzuten duena; partiduan zehar esparru horretan inongo okerrik antzematera, mugaketa horretara egokitzen asmatuko ez zuela sumatzen zuen, ezin izango zion hari aurre egin.

Beretzat nahitaezkoa zen bere jatorrizko guraria, bere agindua, jokaldia gauzatzeko oro har bete egiten zela ikustea, garun automatikoak zehatz-mehatz burutzen zuela; antzeman ahal zezakeen edozein mugimendu arrarok aztoratu egingo zukeen, gerta zitekeen guztiari erreparatuta harixe zion beldurrik handiena, kontzienteki iragartzeko gai zen ahulgunea, bere ahulgunea, berak eta ez beste inork ezagutzen zuena.

Horrek beldurtzen zuen, gorputza zahartzen den modu berean garuna ere zahartzen dela uste zuen, eta pilotarekin egin nahi zuena zehatz-mehatz jokaldian burutzea bere gain ez zegoela sumatzen zuen, kontrolatu ezin zuen zerbaiten menpe zegoen, eta zahartu, ondo ibiltzeari utzi eta ustekabeak eman

Hona hemen egitasmo baten zati bat den liburua.

Dena 2003-ko uztafeko bero zekarreko egun batean hasi zen, egilea telebisiolari begira zegoen, pilota partidu baten azalpenak ematen Julian Retegi ageri zen. Beroak, mendeko beroak, egilearen neuronak aztoratu zituen, honek bere adiskidearekin hitz egin zuen, Julian Retegiri buruz zituzten croitzapenei buruz aritu ziren. Egileak aspalditik zuen Juliari buruz zerbait idazteko gogoa eta bere lagunak, idatzitakoa berak euskaratuko zuela esatean, horretara bultzatu zuen.

Julian Retegiren iritzia jakitea interesgarria zela pentsatu zuten eta Baintet editorialekin harremanetan jarri ziren, hitzordua jarri zuten, bitartean egileak eta itzultzaileak pentsatzen jarraitu zuten, komunikatzen. Itzultzaileak buruko gaitza duen anaia bat du eta egileari balizko irabazia mundu horretara bideratzeko aukera iradoki zion, buruko gaitza duten pertsonen irudia hobetu eta beren gizarteratzea lortzeko bidean lagungarri izango zen ekimena.

Zertan erabil zitekeen liburua sortutako irabazia? Mollarriko goikaldeko maldetan solasean ari zirela, Zarauzko hondartzan olatuak nola hausten ziren begiratzen zuten bitartean, irabaziekin buruko gaitzen bat zuten pertsonentzat eskuz banakako txapelketa bat antolatu zitekeela bururatu zitzaion, nolabaiteko eskuz banakako paraclimpiada bat.

Baintet mediak harrera ona egin dio proposamenari bere esotasunean, eta geroxeago Asegarcetik ere bai.

Juliani idatzitakoa gustatu zitzaion eta hitzaurrea prestatzeko bailetza eman zuen, berak Ladisekin hitz egin zuen eta honek epilogoia prestatzea onartu zuen.

Ekimen honen beste alderdiari buruz zerbait esatea falta da, buruko gaitza duten pertsonentzat eskuz banakako txapelketa bat antolatzeari buruzkoa alegia. Ekimenak harrera ona izan du, mundu hori ezagutzen duten zenbait senidek, zenbait profesionalak, euren atxikimendua adierazi dute, ekimena arrakastatsua izan dadin laguntzeko prest daude. Julianek ere, oraindik jardunean, aholkuren bat emango lieke, pilotarien entrenatzaileei, botileroei, pilotariei...

Egilearen web-gunea: www.altoaragon.org/bidegain/

Itzultzailea: Jexus Zufiria Letemendia

"Eta ezkutaketaz ari garela, ni beti salatu izan naiz nire arma onenak ezkututzen, gehien estimatzen nituen gaitasunak, ez hainbeste nire gabeziak; berriro ere atzekoz aurrerakoa, kontua ez zen hainbeste nire akatsak ezkutatzea, batez ere nabarmenenak iruditzen zitzaizkidanak, herrenak disimulatzea zaila da eta denok daukagu herrenen bat edo beste; bertutea da gorde behar dena, zuk badaukazula jakinda besteek edukiko ez dutela uste duzun ahalmen hori, zuri emana izan eta besteek suertatu ez zaien grazia hori, edo zuk bezainbeste garatu ez dutena."

JULIAN RETEGI

"Biok bagenekien hura gure eskuz banakako azken finala zela, nik ez nuen gehiago sufritu nahi, ez zuen merezi, nire helburu guztiak bete ziren, bereak ere bai, nik sei final jokatu nituen bere aurka eta haletatik bi irabazi, berak hamahiru jokatu zituen eta hamar irabazi.

Eskuz banakakoaren inguruan bizi izan nituen hamabost-hamasei urteak nahikoak ziren, Julianekin izandako aurkakotasunak bion arteko adiskidetasuna ekarri zuen.

Zeinek ezagutzen du Julian nik baino hobeto?"

LADIS GALARTZA

bainet
editorial

www.bainet-editorial.com